

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

IRUNGO UDALA

*Iragarkia*

2020ko otsailaren 17an, alkate-lehendakariak 150 zenbakiko Ebazpena eman zuen, zeinak honela dioen:

«1. Babes Akustiko bereziaren Eremua izendatzea 8.3.05 Mendipe eremuko esparrua eta Zonako Plana onestea honi eransten zaion dokumentuan zehazten diren neurri osagarriez.

2. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari. Aukeran, berraztertze errekurtsua jarri ahalko da beronen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsuaren aurretik, hila-betean ebazpena jakinarazi eta biharamunetik, edo, bestela, zuzenean aurkaratu ahalko da ebazpena, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabetean ebazpena jakinarazi eta biharamunetik. Gainera, egokitzat jotzen den beste edozein errekurtsu aurkeztu ahalko da.»

Dokumentu osoa argitaratuta dago udaleko web orrian.

Argitaratu egiten da, Euskal Autonomia Erkidegoko hots kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 8. artikulua betetzearren.

Irun, 2020ko otsailaren 24a.—Alkatea, eskuordetuta, Hirigintzako teknikaria. (1129)

AYUNTAMIENTO DE IRUN

*Anuncio*

Con fecha 17 de febrero de 2020 por la Alcaldía-Presidencia, se ha dictado la siguiente Resolución n.º 150:

«1.º Declarar Zona de Protección Acústica Especial el área comprendida en el ámbito 8.3.05 Mendipe y aprobar el Plan Zonal con las medidas complementarias según Documento que adjunto se acompaña.

2.º La presente resolución pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado de lo contencioso-administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro que se estime oportuno.»

El documento completo está publicado en la pag web municipal.

Lo que se publica en cumplimiento de lo previsto en el artículo 8 del Decreto 213/2012 de 16 de octubre, de Contaminación Acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Irun, a 24 de febrero de 2020.—El alcalde, p.d., la técnica de Urbanismo. (1129)